



UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 17/2018

L A S A R T E - O R I A
KO UDALBATZARRAK 2018 KO
ABENDUAREN 11AN EGINDAKO
OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

ACTA DE LA SESIÓN
ORDINARIA CELEBRADA POR EL
PLENO MUNICIPAL DEL
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-
ORIA EL DÍA 11 DE DICIEMBRE DE
2018.

ETORRITAKOAK:

ASISTENTES:

ALKATE LEHENDAKARIA:
ALCALDE-PRESIDENTE:

D. Jesús Zaballos de Llanos jn. (PSE-EE-PSOE)

ALKATEORDEAK:
TENIENTES DE ALCALDE:

D^a Lourdes Acevedo Beldarrain and. (PSE-EE-PSOE)
D. Agustín Valdivia Calvo jn. (PSE-EE-PSOE)
D^a Maite Iglesias Sánchez and. (PSE-EE-PSOE)
D. Jesús Alonso Ocariz jn. (PSE-EE-PSOE)
D^a Nuria Fernandez Castrillo and. (PSE-EE-PSOE)

ZINEGOTZIAK:
CONCEJALES:

D. José M^a Urdampilleta Zubitur jn. (PSE-EE-PSOE)
D. Pablo Barrio Ramirez jn (EH BILDU)
D^a Leire Elizegi Beloki and. (EH BILDU)
D. Gorka Lizarraga Erro jn. (EH BILDU)
D^a Kristina Bernal Etxeberria and. (EH BILDU)
D^a Estitxu Alkorta Barragán and (EAJ-PNV)
D. Jon Antxordoki Rekondo jn. (EAJ-PNV)
D. Arkaitz Naya Carrasco jn. (ADLOP)
D. David Ares Rodriguez jn. (ADLOP)
D^a Alicia Garcia Patino and. (ADLOP)
D. Alejandro Sáenz Muriel jn. (PP)

IDAZKARIA:
SECRETARIO:

D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn.

EZ ETORRIAK:

NO ASISTENTES:

KONTUHARTZAILEA:
INTERVENTOR:

D. Ion Murua Guinea jn.



Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoa, 2018ko ABENDUAREN 11ko 18:30 zirelarik, alde zurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Jesús M^a Zaballos de Llanos Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quorum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratu deklaratu du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

1. - 2018KO UZTAILAREN 24AN OSPATUTAKO BATZARRAREN AKTAREN ONARPENA.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, AHO BATEZ, **ONARTU** egiten du hura.

2. - DIRU-LAGUNTZEN 2017-2019 PLAN ESTRATEGIKOAREN LEHEN ALDAKETAREN ONESPENAREN KONTU EMATEA.

2256-2018 zenbakidun dekretuaren kontu ematen da, non Diru-Laguntzen 2017-2019 Plan Estrategikoa onesten den, dagozkion aurrekontuen aurreikuspenekin.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 11 de DICIEMBRE de 2018, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Jesús M^a Zaballos de Llanos, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 24 DE JULIO DE 2018.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por UNANIMIDAD, **APRUEBA** la misma.

2.- DACIÓN DE CUENTA DE LA APROBACIÓN DE LA PRIMERA MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2017-2019.

Se da cuenta del decreto nº 2256-2018, en el cual se aprueba la primera modificación del Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019, y sus correspondientes previsiones presupuestarias.



3. – VI. PLANGINTZALDIARI (2018-2022) DAGOKION UDAL BARRUKO "EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA" ONESTEA.

Ikusirik Euskara Batzordeak, 2018ko abenduaren 3ko bilkuran emandako diktamina.

Ikusirik 2018ko abenduaren 3ko Euskara Batzordean VI. Plangintzaldiari (2018-2022) dagokion udal barruko "Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa" aurkeztu dela.

Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, **AHO BATEZ** honako akordioa hartzen du:

Lehena eta bakarra.- VI. Plangintzaldiari (2018-2022) dagokion udal barruko "Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa" onestea.

4. – ALKATEA AHALDUNTZEA OLA KALEKO GARAJEEN OBRA KONSOLIDATUA ETA JABETZA HORIZONTALAREN ESKRITURAK SINA DITZAN.

Ikusirik Hirigintza, Obrak eta Ingurumeneko Batzordeak 2018ko abenduaren 3ko bilkuran emandako diktamina.

Se presenta ante la Comisión la Propuesta de Alcaldía de Lasarte-Oria a fin de que se faculte al Alcalde para formalizar la escritura de agrupación de fincas y declaración de obra consolidada y configuración de propiedad horizontal de los garajes situados en planta de sótano de Ola Kalea, ya que tanto el Notario como el Registrador de la Propiedad exigen que para ese acto, el Alcalde debe contar con la autorización del Pleno de la Corporación.

3.- APROBACIÓN DEL "PLAN ESTRATÉGICO PARA LA NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA" CORRESPONDIENTE AL VI. PERIODO DE PLANIFICACIÓN (2018-2022).

Visto el dictamen emitido por la Comisión de Euskera, en sesión celebrada el 5 de marzo de 2018.

Visto que en la Comisión de Euskera celebrada el día 3 de diciembre de 2018, se ha presentado el "Plan estratégico para la normalización del uso del euskera" correspondiente al VI. Periodo de Planificación (2018-2022).

El Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por **UNANIMIDAD** toma el siguiente acuerdo:

Primero y único.- Aprobar el "Plan estratégico para la normalización del uso del euskera" correspondiente al VI. Periodo de Planificación (2018-2022).

4.- FACULTAR AL ALCALDE PARA LA FIRMA DE ESCRITURAS DE OBRA CONSOLIDADA Y CONFIGURACIÓN HORIZONTAL DE GARAJES DE OLA KALEA.

Visto el dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente en sesión celebrada el día 3 de diciembre de 2018.



Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, **AHO BATEZ** honako akordioa hartzen du:

Sometida a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por **UNANIMIDAD** toma el siguiente acuerdo:

Primero y único.- Facultar al Alcalde para que comparezca ante el notario y otorgue la agrupación de fincas y declaración de obra consolidada y configuración en régimen de propiedad horizontal de los garajes situados en la planta de sótano de Ola Kalea de Lasarte-Oria, en las condiciones que considere convenientes, firmando para ello los documentos públicos y privados que fuesen menester.

5. – LASARTE-ORIAKO UDALAREN ARAUDI ORGANIKOAREN 40.2 ARTIKULUA ALDATZEKO PROPOSAMENA, AHAL DU LASARTE-ORIA PUEDE UDAL-TALDE POLITIKOAK AURKEZTUA.

5.- PROPUESTA PRESENTADA POR EL GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL AHAL DU LASARTE-ORIA PUEDE, DE MODIFICACIÓN DEL ARTÍCULO 40.2 DEL REGLAMENTO ORGÁNICO DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA.

Ikusirik Barne Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2018ko abenduaren 3ko bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en sesión celebrada el día 3 de diciembre de 2018.

Ikusirik Ahal Du Lasarte-Oria Puede udal-talde politikoak aurkezturiko proposamena, Lasarte-Oriako udaleko Araudi Organikoaren 40.2 artikulua 2. paragrafoa aldatzeari buruzkoa, ondorengo dena:

Vista la propuesta presentada por el grupo político municipal Ahal Du Lasarte-Oria Puede en el que se propone una nueva redacción del párrafo 2º del artículo 40.2 del Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, que es la siguiente:

"40. artikulua.- Udal-talde politikoaren funtzionamendurako baliabideak.
2.- [...] Talde politikoek aurreko paragrafoak aipatzen duen diru-esleipenaren kontularitza berezi bat eraman beharko dute, eta Udalbatzarraren esku jarriko dute **urtean behin. Udaleko talde politiko bakoitzak Udaleko idazkariari entregatuko dio urte bateko ekainaren eta hurrengo urteko maiatzaren artean izandako diru-sarrerari eta gastuei buruzko informazioa (data hori aldatu ahalko da baldin eta udaleko talde politikoek**

"Artículo 40.- De los medios para el funcionamiento de los Grupos Políticos Municipales.
2.- [...] Los grupos políticos deberán llevar una contabilidad específica de la asignación a que se refiere el párrafo anterior, que pondrán a disposición del Pleno de la Corporación **con una periodicidad anual. Cada grupo político municipal hará entrega al Secretario del Ayuntamiento de la información relativa a los ingresos y gastos habidos entre el mes de junio de un año y el mes de mayo del año**



aho batez hala erabakitzen badute). Emandako datuak udalaren webgunean argitaratuko dira."

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, **AHO BATEZ**, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Hasierako onespina ematea "Lasarte-Oriako Udalaren Araudi Organikoaren 40.2 artikulua 2. Paragrafoaren aldaketari, Ahal Du Lasarte-Oria Puede udal-talde politikoak aurkezturiko proposamenak dioen arabera.

Bigarrena.- Akordio hau jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia ematea hogeita hamar egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Epe horretan inork ez balu erreklamazio edo iradokizunik egingo, akordioa behin betikotasunez onartuta geratuko litzateke.

*Gai ordenan EH BILDU, ADLOP, eta EAJ-PNV-k aurkeztutako mozio bateratua txertatzeko urgentzia bozkatzen da.

Bozkatzera jarrita urgentzia, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ, **ONARTU** egiten du hura.

siguiente (pudiendo ser modificada esta fecha si así lo acuerdan los grupos políticos municipales por unanimidad). Los datos entregados se publicarán en la página web municipal."

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por **UNANIMIDAD**, toma los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar inicialmente la modificación del párrafo 2º del artículo 40.2 del Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, según la propuesta presentada por el grupo político municipal Ahal Du Lasarte-Oria Puede.

Segundo.- Someter el presente acuerdo a información pública y audiencia a los interesados por plazo de treinta días, contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

En el caso de que no se produjesen reclamaciones y sugerencias en dicho plazo, quedará definitivamente aprobada la modificación.

*Se vota la urgencia para incluir en el orden del día la moción conjunta presentada por EH BILDU, ADLOP, y EAJ-PNV.

Sometida a votación la urgencia, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD, **APRUEBA** la misma.



6. – EH BILDU, ADLOP eta EAJ-PNV
UDAL-TALDE POLITIKOEK
AURKEZTUTAKO MOZIO
BATERATUA: "LAN HITZARMENAREN
45.ARTIKULUA ALDATZEA"-RI
BURUZKOA.

6.- MOCIÓN CONJUNTA
PRESENTADA POR EH BILDU, ADLOP
y EAJ-PNV RELATIVA A: "MODIFICAR
EL ARTICULO 45 DEL CONVENIO
LABORAL"

Toma la palabra el Sr. Alcalde para leer la moción que se transcribe a continuación:

MOCIÓN CONJUNTA

Los partidos abajo firmantes consideramos la conciliación familiar no solamente como un derecho de los y las trabajadoras, que sin duda también lo es, sino como un instrumento importante en aras de la consecución de una sociedad más igualitaria desde la perspectiva de género al permitir un reparto equitativo de tareas y responsabilidades en el ámbito familiar y doméstico.

Constatamos, por otra parte, que, en lo que se refiere a la concreción de ese derecho, la vigente redacción de la Ley de Estatuto de los Trabajadores en el artículo 37, apartados 6 y 7, supone una mejora con respecto a lo recogido en el artículo 45 del Convenio Laboral en vigor en el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Teniendo en cuenta todo ello, entendiendo que es un derecho de los trabajadores, y atendiendo a la solicitud planteada por el Comité de Empresa del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, los grupos municipales de EH Bildu, EAJ-PNV y Ahal Du Lasarte-Oria Puede solicitan la aprobación de los siguientes acuerdos:

1.- Se acuerda modificar la redacción del artículo 45 del Marco regulador de las condiciones de trabajo del personal del ayuntamiento, adecuándolo a lo redactado en el punto 6 y 7 del artículo 37 del estatuto de los trabajadores.

"Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algún menor de doce años o una persona con discapacidad que no desempeñe una actividad retribuida tendrá derecho a una reducción de la jornada de trabajo diaria, con la disminución proporcional del salario entre, al menos, un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella."

"La concreción horaria y la determinación del periodo de disfrute del permiso de lactancia y de la reducción de jornada, previstos en los apartados 4 y 6, corresponderán al trabajador, dentro de su jornada ordinaria. No obstante, los convenios colectivos podrán establecer criterios para la concreción horaria de la reducción de jornada a que se refiere el apartado 6, en atención a los derechos de conciliación de la vida personal, familiar y laboral del trabajador y las necesidades productivas y organizativas de las empresas."

2.- Se acuerda modificar la edad de doce años ampliándola a los catorce años.



Bozkatzera jarrita mozio bateratua, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko hamar botorekin (4 EH BILDU, 3 ADLOP, 2 EAJ-PNV, 1 PP) eta zazpi abstentziorekin (7 PSE-EE-PSOE), **ONARTU** egiten du hura.

Sometida a votación la moción conjunta, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con diez votos a favor (4 EH BILDU, 3 ADLOP, 2 EAJ-PNV, 1 PP) y siete abstenciones (7 PSE-EE-PSOE), **APRUEBA** la misma.

Toma la palabra la Sra. Acevedo y dice que en primer lugar quiere incidir en que la propuesta de 14 años, es una propuesta por parte de este equipo de gobierno, como mejora social para el conjunto de los trabajadores. Explica que el otro día, al terminar la Comisión, y tras el largo y extenso debate que tuvieron, solicitaron y requirieron un informe jurídico al respecto. Comenta que el abogado al que se ha solicitado el informe, contestó que el estatuto de los trabajadores no tiene carácter supletorio para los funcionarios públicos, por eso se han abstenido. Añade que hace mención a que el estatuto de los trabajadores dispone que se excluye de su ámbito de aplicación la relación de servicio de los funcionarios públicos, que se regirá por las correspondientes normas legales y reglamentarias, así como la del personal al servicio de las administraciones públicas, y cuando con amparo a la ley, esa relación se regule por normas administrativas o estatutarias. Sigue diciendo que ellos consideran, que este artículo lo que hace es mermar los derechos de los funcionarios, porque habla del disfrute de la jornada en horario ordinario. Pero en cualquier caso se han abstenido porque están a favor de la regulación de los trabajadores, siempre y cuando no choque con el deber, y el derecho de los ciudadanos. Continúa diciendo que esperarán al informe jurídico correspondiente, y en función de lo que les diga la legislación al respecto, actuarán.

7. – GALDERA ETA ERREGUAK.

7.-RUEGOS Y PREGUNTAS

- **Por el Sr. Antxordoki (Grupo municipal EAJ-PNV):**

1- **Diru-laguntzari uko:** Aipatzen du egunkarian salatu zutela, Udalak diru-laguntza batzuei uko egin ziela, eta gaur albisteetan ikusi dutela, Jaurlaritzako aurrekontuak kili-kolo daudela, ez dakitela aterako diren ala ez. Jarraitzen du esaten aurrekonturik ez badago, partida horiek "fondo comun"-era joanda, galdu egingo lirakeela, eta beraz, diru-laguntza partida hori hurrengo urtean 430.000€ gutxiagorekin joango dela. Galdetzen du ea nola ikusten duten gaia, eta zergatik egin dioten uko diru-laguntza horri.

2- **Epaitegiko errekerimendua Euskara Departamentuari:** Esaten du Euskara Zerbitzuari dokumentazio bat gazteleratzea eskatu zitzaiola epaitegitik, Idazkari jaunari galdetu ziola, kontsulta gehiago egin zituela, Jaurlaritzari etab., eta badirudi legeak esaten duela bi erakundeen artean ez dagoela zergatik dokumentazioa erdaratu beharrik. Orduan, momentuan zegoen Alkateak, bere gogoia horrela zelako, Euskara Zerbitzua behartu zuen, egiten ari zen guztia utzi, hori gazteleratzeko. Galdetzen dio ea horren jakitun den, eta zein iritzi duen, zeren azken finean, ez zegoen horren beharrik.



- **Por el Sr. Naya (Grupo municipal ADLOP):**

- 1- **Reglamento Cesión Uso de Locales:** Comenta que no sabe si el gobierno municipal tiene en mente alguna fecha para la realización del mismo, ya que llevan tiempo preguntándolo.
- 2- **Contenedores soterrados:** Explica que han consultado regularmente, tanto su grupo como el resto de grupos que acuden a las Comisiones de Servicios Públicos, sobre la cuestión de la consulta de los contenedores soterrados. La respuesta habitual suele ser que se está trabajando en ello, parecía que la intención era que fuera este año, pero dado que no tienen ninguna respuesta más concreta, creen adecuado preguntarlo en Pleno, para ver si así se les pueden dar una información un poquito más concreta.

- **Por el Sr. Barrio (Grupo municipal EH BILDU):**

- 1- **Gizarte Zerbitzuen egoera:** Hasten da esaten badirela 3 aste langile sozial bat bajaran dagoela, eta ez dela ordezkapena egin. Jakin izan dutenez ordezkapen falta hori dela eta, gaur bertan, herritarren bat kezaka aritu dela horregatik, langile sozial horren laguntza behar bait zuen. Gaineratzen du eman zaion erantzunaren arabera, langile sozial hori ez da ordezkatu. Beraz, galdetzen du ea horrela den egoera, eta hala baldin bada zergatik ez den ordezkatu, zeren une honetan departamentu horretan bertan langile sozial bat oporretan dago eta ordezkatu egin dela dio. Azaltzen du departamentuak duen lan karga, eta dagoen itxaron zerrenda egonda, ez dutela ulertzen nola ez diren egiten ordezkapen horiek. Beti esaten duten bezala, departamentu horretara joaten den jendeak behar handiak bait ditu, eta larriak.
- 2- **Auzolan-Berri hitzarmena:** Aipatzen du eskualdeko udalerrien artean, hitzarmen hau sinatu dela, baina Lasarte-Oriako Udala hitzarmen horren kanpo geratu dela. Azaltzen du, Auzolan-Berri programaren helburua, lan merkatuan integratzeko arazoak dituzten pertsonen, mekanismoak edo gaitasunak ematea dela, bide horretan pausoak eman ditzaten. Beraz, programa interesgarri bat. Hala ere, beste udalerririk Lasarte-Oriaren erantzunaren zain egon direla dio, baina honek ez duela erantzun egindako deialdiari, eta hitzarmena Lasarte-Oria kanpoan geratuta sinatu dela, aurtengoz behintzat. Gaineratzen du Batzordean bi arrazoi nagusi eman zizkietela erabaki hau esplikatzen; batetik, departamentuak duen lan karga handiaren ondorioz, ezin ziotela aurre egin programa honek eskatzen duen lanari; eta bestetik, kreditu aldaketa bat egin behar zela, aurtengo aurrekontuetan ez zegoelako sartuta, eta ez dela posible izan. Segitzen du esaten bigarren arrazoi hau ez zaiela onargarria iruditzen, udalak izugarritzko erremanentea bait dauka, eta gainera kreditu aldaketak edozein momentuan egin bait daitezke, eta ez da horrela egin. Lan kargaren arazoia gehiago ulertzen dutela dio, baina hain zuzen, departamentu horren arazo potoloak ikusirik, aurreko Pleno batean mozio bat aurkeztu zutela, eta onartua izan zela, egoera hori aztertu eta irtenbidea bilatzeko mahai bat sortzeko, non, ordezkari politikoak, teknikariak, eta kanpoko adituak egongo ziren. Jarraitzen du esaten hilabeteak pasa direla, arazoak areagotu egiten direla, eta ez dela ezer egiten. Beraz, galdetzen du ea noizko jarriko den martxan lan batzorde hori. Bukatzeko esaten du inguruko udalak, Lasarte-Oriako udalak hitzarmenari begira emango zuen erantzunaren zain egon direla, eta ez dela



erantzunik eman. Hortaz galdetzen du zergatik ez zaien erantzunik eman eskualdeko beste udalerriei, parte ez hartzearen erabakiari buruz.

- 3- **Kaboen perfilen helegitea:** Esaten du bere momentuan EAJ Udal Taldeak helegite bat aurkeztu zuela epaitegian, eta beraz, Udalak epaitegian defendatu beharko duela bere burua, logikoa den bezala. Baina ikusi dute, azaroaren 9ko dekretu batean, epaitegietako defentsa hori egiteko Garrigues Bulegoa aukeratu dela. Gaineratzen du honen kostua 12.000€ + BEZ-a izango dela, gero seguru asko Udalak galdu egingo duela, eta Auzitegi Gorenera joko duela, orduan, kostuak are eta gehiago handituz. Beraz, galdetzen du, Udalak ez ote duen zerbitzu juridiko propioa, zergatik ez duten erabili, ez ote diren fidatzen teknikarietan, komentario hori askotan entzun bait zuten aurreko legealdian. Azaltzen du egoera ulertzen dutela, aurreko legealdian beraiek ere antzekoak egin izan dituztela, lan karga handia dagoela etab., baina udal zerbitzu juridikoa ez bada erabili, galdetzen du zergatik ez den kontratatu, ohikoa den moduan, inguruko abokatu bat. Zergatik jo duten estatuko bulego garestienetarikora, eta ea zer den hau, luxuzko abokatuak euskararen defentsan, edo euskaren kaltetan.
- 4- **Kontratatzaileen perfila:** Aipatzen du, legez, udalak egiten dituen kontratuak argitaratu egin behar dituela udaleko kontratatzaileen perfilean 3 hilabetero. Azpimarratzen du ikusi dituzten azkenak 2016koak direla, eta galdetzen du zergatik dagoen horrela, ala gaizki ikusi duten.

- **Por la Sra. Elizegi (Grupo municipal EH BILDU):**

- 1- **Euskaraldiko hausnarketa:** Azaltzen du Euskarako Batzordean Euskaraldiarekin lotutako hausnarketa eta eskaera bat elkarbanatu zutela, eta proposamen hori hona ere ekarri nahi zutela, guztiekin konpartitzeko. Hasteko aipatzen du zorionak emateko moduan daudela, bai Udaleko Euskara Zerbitzuari, bai Hamaikakoari, bai Ttakuni, eta baita ere herrian egunero herrigintzan aritzen diren eragile guztiei. Gaineratzen du guztiak zoriontzeko moduan daudela baita ere; Euskaraldian izan den parte-hartze kopuruagatik; bai Belarriprest, eta Ahobizi-ak, egin diren ekimenengatik; gazteen parte-hartzea, bai Institutuan, bai herrian egin diren ekimenetan; eta baita ere udaleko alderdi guztiak batu direlako Euskaraldian. Jarraitzen du esaten, honek guztiak, batetik, herri honetan euskara maite dutela erakusten duela, euskaraz bizi nahi dutela, eskubide hori dutela, eta posible dela. Bestalde, erakutsi da herri honetan Ahobizi eta Belarriprest asko daudela, eta pozgarria dela jende asko egotea ere, euskara ulertzen duena eta ikasten ari dena. Segitzen du esaten honek erakutsi duela, herrigintza eta udalaren arteko elkarlanak zein garrantzi eta potentzialitate duen, argi eta garbi ikusten bait da guzti hau ez litzatekeela posible izango udalak bakarrik aurrera eramatea. Herrigintzan egunero egunero euskararen alde lanean ari direnekin lanean aritzeak, denok batera aritzeak lanean, zein garrantzi handia duen ikusi dela dio. Gaineratzen du Lasarte-Oria eredu izan dela eta aitortua izan dela Euskal Herri osoan. Batetik Ahobizi eta Belarriprest izenak Lasarte-Orian sortuak izan zirelako Maratoian, eta ez dela kasualitatea, herritik egunero egiten den lanaren ondorio baizik. Baita ere Euskaraldiko kantua herri honetako pailazoek egindako kantua izan delako, Euskal Herri osoan kantatua eta dantzatua, eta komunikabideetan ere eredu izan direlako. Euskaraldiko programak egin direnean Lasarte-Oria gorai patua izan dela ere aipatzen du, eta honek guztiak erakusten duela euskalgintza Lasarte-Orian bizi-bizirik dagoela. Beraz, herrigintzan egunero lanean



dabiltzan elkarte, eragile, eta udalaren arteko elkarlan hori indartzea eskatzen du, adibide honek erakutsi baitu zein garrantzi duen honek. Eta baita ere Udalak bide horretan ez ditzala oztopoak jarri, ez ditzala egitasmoak kendu, ez ditzala baliabideak kendu etab. Alderantziz baizik, elkarturik, baliabideak indartu, eta egunerokoan herrigintzan dabiltzan eragile eta elkarteekin bat egitea. Berresten du alderdi guztiak Euskaraldian batera egotea zoriontzen dutela, pozgarria iruditzen zaie, eta eskatzen du hemendik aurrera ere, nahiz eta txapak jada kendu dituzten, elkarrekin jarraitzea gai honetan. Ez izatea borroka gai bat, adibidez perfilen gaiarekin pasatu den bezala, eta beraz, beren nahia elkartuta euskararen alde jarraitzea dela dio, eta herri honi Euskaraldiak aitortza bat eman dionez, udalak herri honetako herrigintzari aitortza bat zor diola iruditzen zaiela. Azpimarratzen du aitortza hori bi norabidetan izan behar dela; alde batetik, egunerokoan bitartekoak emanez eta laguntzak jarritz, egitasmoak indartuz eta ez kenduz; eta bestetik, herri honek jaso duen aitortza publiko horren ondorioz, udaletik herrira, aitortza publiko bat eginez.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para responder a las peticiones y preguntas formuladas por los distintos grupos políticos.

- 1- Diru-laguntzari uko:** Comienza diciendo que es partidario que todas las administraciones públicas tengan sus presupuestos aprobados, por lo menos intentarlo, y cree que el Gobierno Vasco tiene que hacer todos los esfuerzos para llegar a consensos y sean aprobados. Pero apunta que el no aprobarse unos presupuestos en una institución no quiere decir que se acabe el mundo, pueden seguir trabajando. Principalmente con unos presupuestos prorrogados, a los cuales hay que hacerles las modificaciones oportunas. Lo que no se prorrogan son las inversiones, pero las partidas de subvenciones sí. Añade que la misma cantidad que estaba en el presupuesto anterior se sigue prorrogando. Explica que sin ninguna duda, este Ayuntamiento solicitará la subvención correspondiente al Departamento de Educación, para la obra que tenga que hacer en los edificios municipales. Reitera que son obras que no son competencia directa del Ayuntamiento, porque una cosa es la responsabilidad municipal, que es el mantenimiento, mantener algo que ya está, y lo que le corresponde a Educación y al Gobierno Vasco, es la inversión. Por ejemplo, aquí pueden mantener una ventana actual, y si se rompe un cristal lo arreglan, etc., pero si se cambian las ventanas eso ya no es mantenimiento, sino que es inversión. Por lo tanto, utilizan la vía de estas subvenciones, como pareciendo que dan algo a los ayuntamientos, cuando en el fondo, son ellos los que están asumiendo responsabilidades que no les compete.
- 2- Epaitegiko errekerimendua Euskara Departamentuari:** Dice que como bien han dicho él estaba fuera del Ayuntamiento, y la decisión fue tomada por la Alcaldesa en funciones por requerimiento del Juzgado, por lo que respalda la decisión de su compañera. Por lo que si el Juzgado ha requerido la documentación por algo será, y por algo se ha producido.
- 3- Reglamento Cesión Uso de Locales:** Comenta que siempre han planteado que primero se hacia el Reglamento del Consejo Asesor Vecinal, que era el que estaba encima de la mesa, lo han presentado a la Comisión, se han presentado las enmiendas por los grupos políticos, y se ha aprobado. Sigue diciendo que lo que sucede es que la Ley de Procedimiento Administrativo Común ha cambiado, y lo



que establece es que en todos los reglamentos, si son de nueva creación, hay que hacer un proceso participativo ciudadano previamente. Por lo tanto, el Reglamento del Consejo Asesor Vecinal tiene que volverse a echar para atrás, iniciarse de nuevo el procedimiento con un proceso participativo, teniendo como base el documento que ya se aprobó en la Comisión de Régimen Interior. Añade que se pondrá en la página web, y en los medios oportunos, para que cualquier ciudadano/a que quiera hacer aportaciones lo pueda realizar.

- 4- **Contenedores soterrados:** Explica que en la consulta participativa que se quiere hacer con los contenedores soterrados, su intención es llevarla adelante, aunque se han dado cuenta de que ha habido un problema, y es que la partida destinada a dicha consulta está en Alcaldía. Por lo tanto será desde Alcaldía de donde se soliciten los presupuestos correspondientes a las tres empresas, para poderlo adjudicar.
- 5- **Gizarte Zerbitzuen Egoera:** Comenta que la concejala de dicho departamento le acaba de decir que todos los puestos están cubiertos. Es la explicación que le acaba de dar.
- 6- **Auzolan-Berri Hitzarmena:** Dice que la Diputación Foral de Gipuzkoa dió subvención a todos los ayuntamientos, para que realizarán el proyecto de los Centros de Día para personas que no sean grandes dependientes. Es decir, el programa Kontentu, que este Ayuntamiento ha puesto en marcha. Lo que sucede es que el resto de los ayuntamientos de la comarca no lo han hecho, no han hecho sus deberes, cosa que el Ayuntamiento de Lasarte-Oria sí, y ahora la Diputación les reclama la justificación para esa subvención. Añade que para poder justificar esa subvención, a todos les ha surgido la idea de crear Auzolan-Berri, que en ningún momento este Ayuntamiento ha dicho que no sea interesante ese programa. Pero en este momento la Diputación les da una subvención para hacer un programa que es el Kontentu, este Ayuntamiento ha cumplido con lo que le pedía Diputación, y ahora el resto de los Ayuntamientos lo que pretenden es justificar esa subvención con otro programa bien distinto. Sigue diciendo que lo que se plantea por parte de este Ayuntamiento es que en este momento no se pueden acoger, pero en el presupuesto 2019 se destinará la partida oportuna para incluirse dentro de este programa. En cuanto a lo que dicen de que hay mucho remanente, explica que la cosa no es tan fácil, porque una cosa son las transferencias de crédito, y otra las modificaciones de crédito, y debería de saberlo. Las transferencias de crédito son cuando se destinan con el dinero propio que hay en el departamento, y si se quiere reutilizar, eso es fácil, es competencia de Alcaldía, y es firmar un decreto, no tiene que pasar por ninguna Comisión y ningún Pleno. En cambio todo el dinero que se utilice con el remanente de Tesorería, tiene una tramitación mucho más larga, que es la Comisión, Pleno, y publicación correspondiente, y no da tiempo. Por lo tanto, vuelve a decir, que han hecho el trabajo que les correspondía, y que les mandató la Diputación Foral, que era hacer el Centro de Día para personas que no tengan grandes dependencias, y el resto de los ayuntamientos son los que no lo han hecho. Apunta que no dude que en los presupuestos de 2019, estará la partida incluida para sumarse al convenio firmado por los ayuntamientos de Auzolan-Berri.



- 7- **Kaboen perfilen helegitea:** Explica que se ha elegido un bufete de abogados como otro cualquiera, no se ha tenido en cuenta nada de lo que estaba requiriendo, porque él ha sido Alcalde de este Ayuntamiento y tampoco lo ha hecho. Que él sepa el Sr. Miguel Castells, no es que haya cobrado más barato, o el Sr. Carlos Querejeta, y tampoco tiene ninguno de los dos despacho de abogados en Lasarte-Oria. Por lo tanto, están reclamando algo que cuando han estado gobernando no lo han hecho. Sigue diciendo que se ha elegido una opción, y cree que es bien elegida, de que no sean los servicios jurídicos propios de este Ayuntamiento los que lleven la defensa, para que no se considere o se crea por nadie que hay intereses personales en dicha defensa. Por eso se ha contratado una empresa externa para hacerlo.
- 8- **Kontratatzailleen perfila:** Comenta que lo ha consultado con el Sr. Secretario, y le dice que sí que se ha hecho una solicitud por parte del Jefe de Gabinete para hacer públicos esos datos, pero que es muy probable que los técnicos no le hayan dado la información correspondiente para colgarlo.
- 9- **Euskaraldiko hausnarketa:** Dice que queda recogida la reflexión que ha hecho la Sra. Elizegi, y reitera desde el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, en nombre de todos, el honor tan grande que tienen que tener al ser pioneros en este sentido, con el Maratón de Euskera, y ahora que se haya cogido esa idea para hacerla llegar a todos los municipios del País Vasco. Quiere dar las gracias a todas las personas que han trabajado en el desarrollo del Euskaraldia, y a la gente que ha participado dando su nombre como Ahobizi y Belarriprest.

Antxordoki jaunak hartzen du hitza eta bere galderei emandako erantzunaren inguruan, esaten du aurrekontu prorrogatuak "sobre ejecutado" izaten direla, beraz, ulertzen du partida hori diru gutxiagorekin joango dela, alegia, diru hori galdu egin dela. Bestalde, Alkate egon denari babestearekin, berak ikusiko duela zer egiten duen, baina esan nahi diola, behintzat onar dezala, ez zela egin behar, Udalari ez zitzaiola tokatzen, eta Alkate zegoenaren nahia izan zelako egin zela, baina ez zegoela derrigortasunik. Gaineratzen du Idazkari jaunak esan zionaren arabera behintzat, ez zela derrigorra, Jaurlaritzak ere berdina esan ziola, eta hori beste administrazioak edukiko duen euskara zerbitzuari tokatuko litzaiokeela.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du beraiek duten informazioaren arabera, eta gaur goizekoa dela, baja guztiak ez direla kubritu, eta dekretua erakustea ere ez litzatekeela gaizki egongo. Bestalde, aipatzen du beste udalerriak udaberritik ari dira Auzolan-Berri proiektua lantzen, eta edozein kasutan, galdetzen du zergatik ez zaien erantzun hemen esan duena, hau da, ez direla sartuko aurten. Zain egon bait dira denbora galtzen, eta beraien beharrei irtenbiderik eman gabe. Erremanenteari buruz aipatu duenaren inguruan, azaltzen du halako zerbait egiteko ez dagoela beharrik departamentu bertako dirua hartzeko, hau da, beste departamentuetan dagoen soberakinetik ere tira daitekeela, eta erabil daitekeela. Ez da derrigorrez departamentu bereko dirua erabili behar. Garrigues bulegoa beste edozein bulego bezalakoa dela esan duenaren inguruan, aipatzen dio ez dela egia, eta berak badakiela ondo, beraiek abokatuak bilatu behar izan dituztenean, hemen inguruan bilatu dituztela, eta noski ez dutela horrenbeste diru kobratu, gainera Querejeta jauna ziurrenik oraindik sosik kobratu gabe egongo dela.



Toma la palabra el Sr. Alcalde y en cuanto a lo que le ha dicho el Sr. Antxordoki, reitera que harán la solicitud cuando toque, porque estará incluido en los presupuesto de Lasarte-Oria del año 2019, si se aprueban. En cuanto a si tocaba hacer la traducción, comenta que si la ley dice que no tocaba, él no lo pone en tela de juicio, lo que dice es que había una Alcaldesa en Funciones que tomó una decisión, y respalda a su compañera. Añade que si no tocaba, pues no tocaba, pero reitera que respalda la decisión de su compañera que estaba de Alcaldesa en Funciones. En cuanto a lo que ha dicho el Sr. Barrio, repite que la Concejala de Servicios Sociales le vuelve a decir que todas las bajas están cubiertas. Por otro lado, en relación a lo que dice que no avisaron a los demás ayuntamientos, apunta que a primeros de diciembre se notificó que el Ayuntamiento no podía formar parte de ese convenio.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du gaur goizean dekretuak begiratzeko egon dela, eta ez duela inolara kontratatu den dekreturik ikusi, nahiz eta Departamentu Buruak baja kubritu dela esan. Auzolan-Berriren inguruan, bai abenduaren hasieran eman zitzaiela erantzuna, baina Batzordea eta gero, justu beraiek Batzordean aipatu ondoren.

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 19:21 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzaraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19:21 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.